



ARARTEKO
ERAKUNDEAREN

30.

URTEMUGA



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa](#) (CC BY 4.0) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: EPS Comunicación





ARARTEKO
ERAKUNDEAREN

30.

URTEMUGA





Aurkezpena

Edozein urtemuga iritsi eta alde onak eta txarrak aztertzean, atzera begirako ariketa egin ohi da beti. Atzera begiratzean, atseginez ikusten da Arartekoa bezalako erakunde batek 30 urteko ibilbidean lortu duen proiektzioa bere jardueran, emaitzetan, eraginkortasunean, erakundeen artean eta gizartean duen garrantzian. Niri egokitu zait azken 4 urteotan erakundea zuzentzea, baina nire aurretik ararteko izan zirenek **Juan San Martínek** (1989-1995), **Xabier Markiegi** (1995-2000), **Mertxe Agúndezek** (jarduneko arartekoa 2000tik 2005era), **Iñigo Lamarcak** (2005-2015) eta **Julia Hernández** arartekoaren ondokoak, baita erakundearen lan egin zuten eta duten guztiek, lan bikaina burutu dute, aski zabaldua dagoen iritziaren arabera. Lan horrek, pixkanaka, sendotu egin du Ararteko erakundea euskal gizartearen, herritarren, gizarte-elkarteen, botere publikoen eta Euskadiko administrazioen aurrean.

Ararteko erakundeak 30 urte bete ditu jardunean, 1989ko martxoaren 8an Juan San Martínek Euskal Autonomia Erkidegoko lehen arartekoaren kargua hartu zuenetik eta lantalde txiki batekin Eusko Legebiltzarraren bulego batean lanean hasi zenetik. Erakunde honetako partaide izan direnek edo garenok, edozein zereginetan (guztiak ezinbestekoak, erakundeak egoki jardun dezan), bizirik mantentzen dugu herritarrei laguntzeko izaera, zerbitzu publikoek (erakundearenak eta administrazio ororenak) efikazia eta eraginkortasun printzipioen arabera jardun dezaten laguntzeko erabakitasuna. Era berean, beste batzuek bezala, uste osoa dugu giza eskubideak baliatu ahal izateko, habitat mesedegarria behar dela, eskubide horiek bazter utzi, gutxitu edo ezeztatu ez daitezela. Barneratuta daukagu justiziaren aldeko ideala eta konprometituta gaude gizarteratzea eta gizarte-ekitatearen sustatzearekin. Irmoki uste dugu berdintasuna ez dela printzipio erretorikoa, baizik eta benetan bermatuta egon behar duela.

Herritarrak gero eta gehiago jabetzen dira beren eskubideez, eta, hortaz, gero eta gehiago eskatzen diete administrazio publikoei. Hori dela eta, herriaren defentsa-erakundeek edo “ombudspersons”

deritzenek geroz eta lan handiagoa egin behar dute herritarrek azaldutako arazoei konponbideak bilatzen, beraien eta administrazioen artean bitartekari lanak egiten, zerbitzu publikoen jardueren kalitatea hobetzeko ahalegintzen, eta herritarrei premiei erantzun eraginkorra emango dieten politika publikoak sustatzen. Defentsa-erakundeen lana "soft power" delakoaren adibide ona da, lan horrek demokraziaren kalitatea hobetzen laguntzen baitu, baita pertsonak ahalduntzen ere, botere publikoekin dituzten harremanetan.

Arartekoaren jarduna esponentzialki areagotu da 30 urteko ibilbide honetan. Lehenbiziko urteko **585 kexa** haiek gehituz joan dira eta euskal herritarrek artatzeko **14.500 jarduera baino gehiago** izatera iritsi dira **2018an** (horietatik **9.200etik gora kexak** dira).

Laburbiltzeko argitalpen honetako jarduera-datuak esanguratsuak dira, berez: **180.000 jardueratik gora**, horietatik **145.000 baino gehiago kexak**, **164 gomendio orokor**, **36 txosten berezi**, **174 argitalpen**. Erakundeak **ia 700 gizarte-erakunderekin** egin ditu aldizkako bilerak eta burutu ditu jarduerak. Zenbaki horiek egundokoak dira egiaz, munta handia dutelako.

2008an hasi zen krisi ekonomiko gogorrek dezente eragin du pertsonen bizimoduan eta gaizkitu egin ditu talderik kalteberenen bizi-baldintzak. Azken urteotan, nabarmen gora egin du Arartekoak gizarte-eskubideen gainean jaso dituen kexen kopuruak; horrek argi erakusten du euskal biztanleriaren sektore batzuk estutasunean bizi izan direla edo hala jarraitzen dutela. Eskubide sozioekonomikoek osatzen dute giza duintasunaren bizkarrezurra; horregatik, eskubide horiek gauzatzeko asmoz apurka aurrera egiteak lehentasuna izan behar du politika publikoak eratzean. Krisi ekonomikoaren garaian hartzen du garrantzirik handiena, hain justu, eskubide ekonomiko eta sozialen egungo egoerak. Krisiak, bere aurpegi latzenarekin batera langabezia eta ohiko etxebizitza galtzea, agerian jarri du, aldi berean, euskal gizarteak balio gorena ematen diela elkartasuna eta giza duintasuna bezalako balioei, eta gure artean gizarte-justizia gailendu dadin irrikatzen dugula; horren guztiaren adierazgarri dira pertsona horiei laguntzeko burutu diren herri-ekimen ugariak.

Prekarietate sozioekonomikoan bizi diren haur eta nerabeak izaten ari dira, hain zuzen, erakunde honen kezka handienetako bat azken urteotan. Euskadin, haurren pobrezia-adierazleak biztanleari oro har ezartzen zaizkion adierazleak ginetik egoten dira beti eta, gainera, horiek baino azkarrago hazi dira. Horrez gain, haurren pobrezia eragin handiagoa du guraso bakarreko familiengan eta familia atzerritarrengan.

Mary Robinsonen hitzak hona ekarriz (NBEren giza eskubideetarako goi ordezkari izandakoa bera), "Pobrezia, berez, oinarritzko giza eskubide askoren urraketa da".

Arartekoak bereziki azpimarratu nahi du giza eskubideen kultura indartzen jarraitu behar dela, orain arte bezala, herritarrek eta euskal administrazio publikoek gure zibilizazioko funtsezko balioak (adibidez, norberaren duintasuna eta norbanakoak berez dituen eskubide-askatasunetikiko begirunea) iraunaraz ditzaten eta haietan sakondu dezaten, alde batera utzita etnia- edo geografia-jatorria (batez ere bere herrialdeetako jazarpenetik ihesi baldin badatoz), sexu-joera edo genero-identitatea, egoera ekonomikoa eta aniztasun funtzionala, eta batzuetan eskubide horiek erabat baliatzea galarazten duten eragozpen, traba, muga eta inertiak kenduz. Horren haritik, beharrezkoa iruditzen zait ohartaraztea gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak oraindik bizirik dirauela eta anitz modutan adierazten dela; haurren eskubideak bermatu behar direla, bereziki sexu-abusuak egon litezkeen kasuetan; eta gizarte-bazterketaren kontra borrokatzeko tresnak bermatu eta indartu behar direla.

Bestalde, atseginez gogorarazten dut, ibilbide luze honetan, administrazio publiko eskudunak Arartekoaren proposamenekiko harkorrak izatea lortu dela, gizartea babesteko euskal sistema hobetzeko. Eta pozik nago kasuetatik %84tan gutxi gorabehera (portzentajea zertxobait aldatzen da urteen arabera) defentsa-erakunde honen ebazpen-gomendioak onartu egin direlako, nahiz eta administrazioak horretara behartuta egon ez, eta nahiz eta, zenbaitetan, zuzendutako jarduerak ez duten legea espresuki urratu, baizik eta nire gidaritzapeko erakundearen ustez, legeriaren interpretazio murriztailegian oinarritu diren eta, horregatik, ez dituzten behar bezala bermatu herritarren eskubideak. Herritarrak gure lanarekin pozik egoteari dagokionez, Arartekora etortzen diren pertsonen konfiantza-adierazle bat da kexa-espeditenteak bukatzean egiten ditugun galdera-sorten emaitza. Galdera-sorta horietatik ondoriozta dezakegu kasuetatik ia %83tan, kexagileek Arartekora jotzeko gomendatuko luketela, administrazioarekin edozein arazo izanez gero.

Eusko Legebiltzarrak Ararteko erakundeari eman dion lan-esparrua dagoeneko ez dute zehazten autonomia erkidegoko edo estatuko mugek bakarrik, baizik eta gero eta biziago mugatzen dute Europako eta nazioarteko konpromisoek ere. Konpromiso horiek tokiz eta nazioz gaindiko eszenatokietan adierazi, bete eta burutzen dira, maila anitzeko harremanen bitartez. Europako alderdiak indar handiz jartzen ditu oinarriak eta eragiten du erakunde honen jardueran, bai **Europar Batasunaren** araudia nahitaez berezko zuzenbidea bailitzen ezarri behar delako, bai **Giza Eskubideen Europako Hitzarmenetik** eta **Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunetik** eratorritako Europako berme-sistema derrigorrezko erreferentea delako funtsean mandatu eta bokazio eskubide-bermatzaileak dituen erakunde batentzat. Hori dela medio, azken urteotan beharrezkoa iruditu zaigu Ararteko erakundeari "Europako eta nazioarteko ikuspegia" ematea, ez bakarrik nazioarteko araudia aztertuz, gure lanean ezarri ahal izateko, baizik eta baita ere Ararteko erakundeak gure inguruko gainontzeko herrialdeetan dauden beste erakunde eskubide-bermatzaile batzuekin harremanak eta lankidetzak sareak sendotzeko.

Eskerrak emanez bukatu nahi dut. Eskerrik asko herritarrei, Ararteko erakundean uste ona izateagatik. Eskerrik asko Arartekoan lan egin duten edo lanean diharduten guztiei, beren lan onagatik eta pertsonekin eta giza eskubideekin hartu duten konpromisoagatik. Milesker gizarte-elkarteei, beraien laguntzagatik. Esker mila administrazio eta erakunde publikoei, herritarrei zerbitzua eta arreta ematerakoan Arartekoa erakunde eraginkorra egiteagatik. Eskerrik asko legebiltzar talde guztiei, pertsonen eskubideak babesteko goi ordezkariari eusten jarraitzeagatik. Milesker hedabideei eta kazetariei, Arartekoaren lana herritarrei helarazteagatik. Agur bero bat argitalpen honen irakurle bakoitzari; etorkizunari begira, espero dut elkarrekin ahalegin handiagoa egitea, denon eskubideak hobeto bermatu daitezen.

Manuel Lezertua

ARARTEKOA

Orain hogeita hamar urte sortu zen Ararteko erakundea eta, ohikoa denez, ilusioz eta, aldi berean, konpromisoz beteta sortu zen. Gure gizartean giza eskubideak defendatu, sendotu eta zabaltzen laguntzeko ilusioarekin. Eta gizarte zuzenago, parekideago eta tolerantzago aurrera egiteko beste tresna bat bailitzen lan egiteko konpromisoarekin.

Bide luzea da gurea, argi-itzalak ditu, helburu batzuk bete dira eta beste batzuk bide horretan geratu ziren, era askotako arrazoiengatik.

Alabaina, giza eskubideak defendatzeak ez dauka ez iraungitze-datarik, ez etenik. Lan isila eta etengabea da, eta batzuetan ziklo berri batean sartu garela eta ziklo horretan beste gai batzuek (ekonomikoak, elkartasunik ezak, berekoikeriak, eta abarrek) eskubideok arriskuan jartzen dituztela, eta, areago, horiei gailentzen zaizkiela badirudi ere, ezin dugu amore eman. Pertsona erdi-erdian izango duen gizartea, amestutako gizartea, denontzako elkarguneez betetakoa eraiki nahi badugu, eskubide horiek defendatzen jarraitzea da bide bakarra. Lan erakargarri da eta ez beti erraz horrek gidatu du eta gidatzen du defentsa-erakunde hau denboraldi labur horretan, bada, gure egutegiak une honetan hiru hamarkada seinalatu arren, denbora azkar igaro da. Izan ere, justiziak, bakeak, tolerantziak eta berdintasunak gidatzen gaituztenean, denborak beste erritmo bat izaten du, bizkor pasatzen da. Benetako gauza bakarrak etorkizuna eta jomuga dira, gure herritarren aldeko lana, herritarrek jasaten baitituzte, azken batean, pertsona bera ez diren beste subjektu batzuk nagusitzen diren gizartearen edo errealitatearen ondorioak. Horren aurrean, urteetan edo hamarkadetan zenbatutako denborak jada ez dauka garrantzirik.

Hasten den urte bakoitza aukera berriak lortzeko hasiera da; horregatik, erakunde honek hogeita hamar urte atzean utzi baditu ere, edo agian horrexegatik, sekula baino indartsuago jarraitzen du, inoiz baino berrituago, erronka eta egoera berriei aurre egiteko, horiek erakundearen hastapenetan ez bazeuden ere, geroan ziur egongo direlako.

Pertsona hobek eta gizarte hobea egingo gaituzten etorkizunaz, ilusioaz, ahaleginaz, lanaz hitz egiten jarraitu behar da. Gizarte horretan denok izan behar dugu gure tokia. Horregatik, Ararteko erakundeak inoiz baino beharrezkoagoa izaten jarraitzen du eta, oraindik ere, gure herriarekin etengabe konprometituta egoteko itxaropenari eusteko bidea da. ZORIONAK!!!

Julia Hernández Valles

ARARTEKOAREN ONDOKOA



30 urtean barrena arartekoaren eginkizunak bete dituztenak

1985ko otsailaren 27an, Eusko Legebiltzarrak 3/1985 Legea onartu zuen, Ararteko erakundea sortu eta arautzekoa. Suediako Ombudsmana aspaldiko aurrekari duen erakunde hau, jakina denez, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 15. artikuluan aurreikusita dago eta bat dator Espainiako Konstituzioaren 54. artikulua sortu zuen Herriaren Defendatzailearen irudiarekin.

Lege horretan, Arartekoa limurtzeko magistratura gisa taxututa dago. “Auctoritas” edo gaitasun morala du eta pertsona nahiz talde kalteberenak babesten ditu, burujabetasunez eta alderdikieririk gabe, euskal administrazioen aurrean.

Honatz Ararteko erakundearen eginkizun nagusiak:

Herritarren eskubideak bete daitezzen zaintzea, haiek euskal administrazio publikoekin dituzten harremanetan.

Euskal Herriko autonomia-, foru- eta toki-administrazioen jarduera ikuskatzea.

Giza eskubideekin eta oinarrizko askatasunekin bat datozen politika publikoak sustatzea.

Administrazioak eta euskal herritarrak gai hauen gainean sentikorrago bihurtzea: eskubideak eta askatasunak errespetatzearekin zerikusia duten arazoak eta erronkak, diskriminazioaren kontrako ekintza eta arbitrariotasuna debekatzea.

Gizarte zibilaren solaskide gisa jardutea, eskubideak bermatzeari buruzko arazoenguz inguruan.

Erakundearen 30 urteko ibilbide honetan, Eusko Legebiltzarrak 4 ararteko izendatu ditu eta arartekoaren 2 ondokok bete dituzte kargu horren zereginak.



JUAN SAN MARTÍN

Arartekoaren Legea onartu zenetik lau urte igaro eta gero, Eusko Legebiltzarrak Juan San Martín Ortiz de Zarate gipuzkoarra aukeratu zuen lehenbiziko ararteko. 1989ko martxoaren 8an jabetu zen bere karguaz.

Humanista eta autodidakta, Juan San Martín Euskaltzaindiko kide izan zen eta hainbat kargu bete zituen bertan, baita Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide ere. Eusko Kontseilu Nagusiko partaide ere izan zen –erakunde hori autonomia aurrekoa zen–.

Juan San Martíni egokitu zitzaion erakunde hau abiarazi eta hasierako nortasuna ematea, **Jesús M^a Arteaga Izaguirre** ondokoaren laguntzarekin –irakaslea eta Zuzenbidean doktorea bera–.

Garai hartan hasi ziren babes gutxiena zuten gizarte-taldearen egoera diagnostikatzeko eta balioesteko ikerlanak; haien ondorioz, zenbait txosten monografiko egin ziren presoez eta atxilotuez, buru-gaixoez eta adinekoez. Horiek txosten berezi gisa ezagutarazi dira Eusko Legebiltzarrean: *Kalabozoak, Psikiatrikoak, Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993) eta Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994)*.

Era berean, hainbat ekimen sustatu zituen, esate baterako, “Padre Francisco de Vitoria” Giza eskubideen bilduma, edo *Dichos y hechos / Esanak eta eginak*, 1994. Bertan bildutako mintzaldi, elkarriketa eta artikuluek, osorik hartuta, Ararteko erakundearen irizpide nagusiak erakusten dituzte.



XABIER MARKIEGI

Xabier Markiegi Candina 1995eko martxoaren 3an jabetu zen ararteko karguaz eta bertan jardun zuen 2000ko irailaren 11 arte. Bere agintaldian, **Mercedes Agúndez Basterra** abokatua izan zuen ondoko.

Xabier Markiegi Bilbon jaio zen, Filosofia eta Letretan, Psikologian eta Teologian lizentziaduna da eta, horrez gain, ingeniari-tza ere ikasi du. Bokazioz irakaslea eta Euskadiko Ezkerra talde politikoko legebiltzarkide ohia. Bere erakunde-jarduerara 1979an hasi zen, lehen udal hauteskunde demokratikoetan Abanto Zierbenako zinegotzi hautatu zutenean, EE taldean. Eusko legebiltzarkide izan zen 1981etik 1990era.

Legebiltzarkide izan zen garai hartan, 17 batzordetako partaide izan zen (eraginkortasunez parte hartu zuen Giza Eskubideen Batzordean) eta bere taldeko bozeramaile jardun zuen zenbait eztabaidatan. Hezkuntzarekin lotutako gaiak eskaini ziren arretarik handiena, zehazki, Euskal Eskola Publikoaren Legeari eta Euskal Herriko Irakasleen Kidegoen Legeari buruzko eztabaidari. Lurralde Historikoaren Legearen inguruko eztabaidan ere esku hartu zuen.

Xabier Markiegi eta Mercedes Agúndezaren agintaldiak sendotu zuen Ararteko erakundea, bulego horren jarduerak kuantitatiboki eta kualitatiboki areagotu baitziren; era berean, agintaldi horretan erakundea gizartera zabaldu zen, Bilbon eta Donostian herritarrak artatzeko bulegoak abiaraziz.

Garai hartan Arartekoaren bulegoak hainbat txosten berezi aurkeztu zituzten Eusko Legebiltzarrari, haurren, nerabeen, adinekoen, buru-gaixoen eta abarren arazoei buruz. Gai horiek guztiak sakon sartzen dira gizartearen. Bereziki adierazgarriak dira *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelako egoera* izenburuko txosten berezia edo polizia-kidegoek etorkinei ustez ematen dizkieten tratuari buruzko txostena (lagunartean *San Frantziskoko txostena* deritzona).



MERTXE AGÚNDEZ

Mercedes Agúndez Basterra, arartekoaren ondokoaren lana bete ostean, jarduneko arartekoa izan zen, 2000tik 2004ra.

Bilbotarra, eskubide demokratikoen defendatzailea, hiru hilabetez espetxeratu zuten 1970. urtean, Francoren kontrako jarduerak burutzeagatik. 1976an hasi zen abokatu lanetan, Comisiones Obrerarekin lotura zuen bulego batean. Hogei urtez lanean jardun eta gero, Arartekoan sartu zenean, emakumeen eskubideen eta duintasunaren alde borrokatzen eta lan egiten zeukan eskarmentua partekatu zuen, eta emakumeen euskal herri-jaietan parte hartzeko eskubidea babesteagatik nabarmendu zen. Adore handia erakutsi

zuen ETaren indarkeria-egoeretan, eta jendaurrean salatu zituen.

Jarduneko arartekoa izan zen urteetan, 7 txosten berezi egin eta argitaratu ziren. Horien artean azpimarratzekoak dira *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo*, *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn*, edo *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn*.



IÑIGO LAMARCA

Iñigo Lamarca Iturbe 2004ko ekainaren 18an izendatu zuten ararteko. Euskal Ganberak berriz hautatu zuen 2009ko urriaren 8an, bost urteko bigarren eta azken agintaldirako. 2015eko apirilaren 15 arte egon zen kargu horretan eta, bere agintaldian, **Julia Hernández Valles** abokatua izan zuen ondoko.

Donostian jaio zen, Zuzenbidean lizentziaduna da, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV). Doktorego ikastaroak egin zituen eta 1994ra arte Konstituzio Zuzenbideko irakasle izan zen Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean. Hainbat ikerlan burutu zituen bertan, batik batik Euskal Autonomia Erkidegoko eta euskal lurralde

historikoetako zuzenbidearen arloan. Fakultateko Batzordeko kide izan zen. *Derecho autonómico* vasco liburuaren (1991) egilekidea da. 1994ko maiatzean, legelari kargua hartu zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Iñigo Lamarca joera homosexualeko eta identitate transexualeko pertsonen eskubideak defendatzeagatik nabarmendu da. 1997tik hasi eta ararteko izendatu zuten arte, *Gehitu* Euskal Herriko gay eta lesbianen elkarteko lehendakari izan zen, eta Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioaren (FELGTB) zuzendaritza taldeko kide. Iritzi-artikulu anitz argitaratu ditu hainbat hedabidetan, eta ohiko kolaboratzaile izan da haietako batzuetan. Gainera, *Gay nauzu* liburu ere idatzi zuen, euskaraz (1999an argitaratua).

Arartekoaren bulegoan beraien eginkizunak betetzeko orduan, Iñigo Lamarcak eta Julia Hernándezek ardura berezia jarri zuten politika publikoak ebaluatzen, eskubide sozialak, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa babesten, aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzen. Erakundea gizarte zibilera zabaltzen gailendu ziren.

Erakundearen buru izan diren hamar urte horietan, ardatz hauetan oinarritu zuen beren lana: Arartekoa berriztatzea, barneko berrantolaketa eginez, eskaintzen dituen zerbitzuak kalitate handiagokoak eta eraginkorragoak izan daitezzen; lan-arloak gehitzea (oraingo 29 arloetara iritsi arte), politika publikoak behar dituzten taldeak babesteko. Herritarrek erakundea gehiago eta hobeto ezagutzea nahi zuen eta, horretarako, bultzada berria eman zion Arartekoaren kanpoko proiektioari eta komunikazioari. Orobat, gizarte-erakundeekin harremanak estutu nahi zituenez gero, bere lana areagotu zuen gizarte-errealitatea ezagutzeko eremuetan, batez ere, beharrik handienak dituzten pertsona eta taldeen arloan.

Bere agintaldian argitaratu diren 17 txosten berezietan, gizartean eragin handia duten gaiak jorratu dira: adibidez, transgeneroen eta transexualen egoera, familiei laguntzeko politikak, garraio-sistemaren irisgarritasuna, terrorismoaren biktimak artatzea, adin txikikoei balioak helaraztea, askatasunik gabeko pertsonen buru-osasunari arreta soziosanitarioa ematea, e.a.



JULIA HERNÁNDEZ


Julia Hernández Vallesek, arartekoaren ondokoa izan ostean, jarduneko arartekoaren zeregina bete zuen bi denboralditan, 2015. urtean barrena. Lehenbizikoa, Manuel Lezertuak ararteko kargua hartu bitartean. Lezertuak ondokoa izateko proposatu zuen berriro, eta urte bereko ekainaren 23an jabetu zen bere karguaz.

Zuzenbidean lizentziaduna da Salamancako Unibertsitatean, Kriminologian lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean, eta tituluduna zerga zuzenbidean, laneko aholkularitzan eta gizarte segurantzian. Orobat, Iberoamerikako Giza Eskubideak, Zuzenbide Estatua eta Demokrazia arloan masterduna da (Alcaláko Unibertsitatea) eta Gizarte

eta Kultura Antropologiako gradua ikasten ari da UNEDen.

Bere laneko ibilbidean, abokatutza eta bititza publikoko lana bateratu ditu Gipuzkoan, lehendabizi PSE-EEko batzarkide moduan Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta gero Errenterriko Udaleko zinegotzi gisa, Gizarte Ongizate eta Osasun arloko zinegotzi-ordezkarri karguan, baita Udalaren Adinekoen Egoitzaren Patronatuko Lehendakaritzan ere.

Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF) Emakumeen Defentsa-erakundearen Sareko kidea da, eta Emakumeen Defentsa-erakundearen Sarearen Europako eskualdeko koordinatzailea OIFen.



MANUEL LEZERTUA

Manuel Lezertua Rodríguez 2015eko maiatzaren 28an hautatu zuten ararteko, eta 2015eko ekainaren 18an jabetu zen bere karguaz Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran. Orain zeregin horretan dihardu.

Zuzenbidean lizentziaduna da, Deustuko Unibertsitatean, Legeetan masterduna (LLM) Londreseko King's College Unibertsitatean (Europako zuzenbidean, zuzenbide konparatzailean eta administratiboan espezializatua) eta doktoretza ikastaroak egin ditu, zati batean euskaraz, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean. Ararteko izendatua izan baino lehen, legelaria izan zen Giza Eskubideen Europako Auzitegian, legelaria Espainiako Konstituzio Auzitegian eta

Eusko Jaurilaritzaren funtzionarioa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (HAEE/IVAP) atxikia, Lehendakaritza eta Justizia Sailean.

1985. urteaz geroztik lanpostu garrantzitsuak bete ditu Europako Kontseiluan, nazioarteko funtzionario lanetan, besteak beste: "GRECO Ustelkeriaren Kontrako Estatu Taldea" akordioaren idazkari exekutiboa, Arazo Penalen Zerbitzuko burua Arazo Juridikoen Zuzendaritza Nagusian, Giza Eskubideen Europako Komisarioaren Bulegoko zuzendaria, Aholkularitza Juridiko (jurista) eta Nazioarteko Zuzenbideko zuzendaria. Argitalpen anitz egin ditu, Europako erkidegoko zuzenbidearen eta giza eskubideen arloan.

Erakundearen buruzagitzan, funtsezko helburu hauek ditu: giza eskubideak eta herritarren askatasunak babesteko zereginetan, erakundea erreferente gisa sendotzea, eta euskal administrazio publikoaren eremuan legea gizatasunez ezartzea. Krisi ekonomikoak gehien kalteku dituen taldeak eta errefuxiatuak defendatzen gailendu da.

Bere agintaldian, arartekoak apustu irmoa egin du, apustu estrategikoa, erakundeari Europan eta nazioartean garrantzia ematearen alde, eta Arartekoak beste eskubide-defendatzaile batzuekin eta Europan nahiz nazioartean giza eskubideak defendatzen dituzten alde anitzeko erakundeekin harremanak indartzearen alde. Arartekoak hainbat arrazoi ditu lankidetzaren esparruetan parte hartu eta esparru horiek prestatzeko, Europan beste eragile batzuekin jarduera egokiak trukatzeko eta hausnarketak partekatzeko: Europan Batasunak balioen, printzipioen, politiken eta arauen sistema erkide bat duenez gero, Estatuz gaindiko horrelako erkidego bateko partaide izateak zenbait erronka dakartzalako berekin; euskal eremuan Europako berme-sistema erabat sendotu nahi delako; edo Europan Batasunaren arau, printzipio eta balioak ezartzeko orduan, eraginkortasuna aktiboki defendatu nahi delako.

Apustu horren ondorioz, harremanak estutu ditu IOIrekin (International Ombudsman Institute), ENOrekin (EBko Ombudsmanaren Sarea), OIFekin (Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa), IALCrekin (Hizkuntza Komisarioen Nazioarteko Elkarte), lehen aipaturiko ENOCekin (Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea), baita bi aldeko harremanak ere nazioarteko beste erakunde batzuekin eta Europako hainbat herrialdetako ombudsmanekin.


Lau urte hauetan, 7 gomendio orokorren onarpena bultzatu du, besteak beste honako hauek: Euskadin harrera egin zaien haurren eta nerabeen arreta; Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemak; Eskola kirolean hasi aurreko adinetan kirol jarduera hezkuntza-balioetan oinarritu beharra, eta ez lehiakortasunean.

Halaber, 4 txosten berezi argitaratu dira eta azterlan batzuk egin dira: adibidez, Euskal administrazioek 14 urte baino gazteagoak diren adin txikiko lege-hausleei emandako arreta hobetzeko gogoetak; edo Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenak, 2017.

Estatistikak




1. GRAFIKOA AUREZ AURREKO KEXAK




1989an datu hori ez zen urteko estatistikan erregistratu)

2. GRAFIKOA TELEFONO BIDEZKO AHOLKULARITZA ETA INFORMAZIOA




2003. urtea baino lehen, datu hori ez zen estatistikan erregistratu)

3. GRAFIKOA ERREGISTRATUTAKO KEXA IDATZIAK




4. GRAFIKOA OFIZIOZKO JARDUERAK




5. GRAFIKOA KUDEATUTAKO KEXAK

GUZTIRA: 145.395



6. GRAFIKOA JARDUERA GUZTIEN KOPURUA



Arartekoak kudeatutako kexak	145.395
Aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez (2003-2018)	33.417
Ikuskapen-bisitak, bilerak (2010. urteaz geroztik)	1.639
Argitalpenak	174
Gomendio orokorrak (1990-2018)	164

GUZTIRA

180.789



Arartekoaren argitalpenak

URTEKO TXOSTENAK

■ **Liburukiak**

1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018

■ **Haur eta nerabentzako bulegoaren txostenak**

2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018

■ **Urteko txostenaren laburpen aldizkaria**

1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018

TXOSTEN BEREZIAK

- *Kalabozaok: Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. 1991*
- *Psikiatrikoak: ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera. 1992*
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen. 1994*
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia. 1996*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera. 1997*
- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan. 1997*
- *Adin txikiko lege-hausleekiko eskuhartzea. 1998*

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn. 1999
- Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegieta. 1999
- Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo: buruko gaitz kronikoa izanda, EAEn ospitaletik kanpoko zaintza jasotzen duten pertsonak. 2000
- EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna. 2001
- Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan. 2002
- Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn. 2003
- Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna. 2003
- Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn. 2003
- Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak. 2005
- Bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren egoera EAEn. 2005
- Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna. 2006
- Bizikidetzeta eta gatazkak ikastetxeetan: EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan Arartekoak egindako ikerketa. 2006
- Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn. 2007
- Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak: hurbilketa. 2008
- Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak. 2008
- Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta. 2009
- Adingabekoei balioak transmititzea. 2009
- Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin. 2009
- EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan. 2010
- Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera. 2010
- EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa. 2011
- Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak. 2011
- EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa. 2011
- E-inklusioa eta Euskadin herritarrek ikt en bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea. (CD-ROM) 2013
- Askatasunik gabe dauden pertsonen buruko osasunari EAEn emandako arreta soziosanitarioa. (CD-ROM) 2014
- Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak. (CD-ROM) 2014
- Askatasunik gabe dauden pertsonen buruko osasunari ean emandako arreta soziosanitarioa. 2014
- Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan: egungo egoera eta hobetzeko proposamenak. (INTERNET) 2016
- EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa. (INTERNET) 2017
- Euskal Herria energia-eredu iraunkor batera igarotzea. (INTERNET) 2018
- Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekotza egitea. (INTERNET) 2019

«PADRE FRANCISCO DE VITORIA» GIZA ESKUBIDEEN BILDUMA (Ikerketa bekak)

- E. J. Ruiz. El derecho al ambiente como derecho de participación. 1993
- M. A. Encinas. Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991). 1994
- G. Varona. La inmigración irregular: derechos y deberes humanos. 1994
- A. Bergara. Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean. 1996
- M J. Fernández de Landa. El control interinstitucional en la Unión Europea. 1996
- I. P. Sánchez. Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV. 1998
- J. Morquecho. Intervención comunitaria en Euskadi: acercamiento a la acción social sobre la exclusión. 1999
- G. Moreno. Trabajo y ciudadanía: un debate abierto. 2003
- A. Olarte. Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad. 2006
- B. Sicilia. Derechos fundamentales y Constitución Europea. 2006
- J. Zarauz. Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular. 2007
- I. Mujika. Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi. 2007

«JUAN SAN MARTÍN» GIZA ESKUBIDEN BILDUMA (Ikerketa bekak)

- J. M. Septién. *Una escuela sin fronteras: la enseñanza del alumnado inmigrante en Álava.* 2006
- A. Bacigalupe y U. Martín. *Desigualdades sociales en la salud de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco: la clase social y el género como determinantes de la salud.* 2007
- J. L. Fuentes y T. L. Vicente. *La población magrebí en el País Vasco: situación y expectativas.* 2007
- F. J. Leturia y N. Etxaniz. *Los derechos de las personas mayores y la prevención del maltrato.* 2009
- I. Orbegozo, A. I. Pérez y L. Pego. *La suspensión individual de derechos en supuestos de terrorismo: especial consideración de la detención incomunicada.* 2009
- A. Gozalo, E. Jiménez y L. Vozmediano. *¿Menores o extranjeros?: análisis de las políticas de intervención sobre menores extranjeros no acompañados.* 2010
- M. Arnosó, M. Mazkiaran, A. Arnosó, S. Luciani, A. Villalón y A. Otaegi. *Acceso de la población inmigrante en la Comunidad Autónoma Vasca a los servicios y prestaciones.* 2011
- Farapi: A. B. Rodríguez, O. García, A. Benito, A. Rodríguez, N. Elías y B. Pecharromán. *Aplicación de los derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CD-ROM).* 2012

«FRANCISCO DE VITORIA» GIZA ESKUBIDEEN BILDUMA

(Jardunaldiak eta hausnartzeko eta parte hartzeko foroak)

- *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak.* 2008
- *Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan.* 2009
- *Eskubide sozialen egungo egoera.* 2009
- *Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean.* 2011
- *Cannabisa: erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak.* 2012
- *Eskubide sozialak krisi garaian (CD-ROM).* 2012
- *Estatu soziala eta bizitza duina (CD-ROM)* 2015

«GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO JARDUNALDIAK» BILDUMA

- *El derecho a la no discriminación por motivo de raza.* 1997
- *Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario.* 1999
- *Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores.* 1999
- *Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos.* 2000
- *Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos.* 2001
- *Derechos humanos y nuevas tecnologías.* 2003
- *La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos.* 2004
- *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro.* 2006
- *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia.* 2009
- *Arartekoa: XXI. menderako Ombudsmana.* 2009
- *Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta heritarrek parte hartzeko IV. Foroa: Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealitatea?* 2009
- *Osasun mentala eta pertsonen eskubideak.* 2009
- *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak.* 2011
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean.* 2011
- *Gaixotasun arraroak: arreta publikoa behar duen errealitate baten argi-itzalak.* 2012
- *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta enpresa pribatuek interes orokorreko zerbitzuak egitea. (CD-ROM).* 2012
- *Pertsonen eskubideak babestea finantza-erakundeekin dituzten harremanetan. (CD-ROM).* 2013
- *Familiak eta beraien beharrak eta erronkak oraingo gizarte -eta ekonomia- egoeran: botere publikoen erantzuna. (CD-ROM).* 2015
- *Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomia egiteko proiektua eraikitzearekin lotutakoak. (CD-ROM).* 2016
- *Europa, asilo lurraldea?: erronkak eta erantzunak. (CD-ROM).* 2016
- *Euskadin kultura-ondasunak babesteko araubideak berekin dakartzan arazoak. (INTERNET)* 2017
- *Haurrenganako sexu-abusua: gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua. (INTERNET)* 2018
- *Pertsonen eskubideak bizitzaren bukaeran. (INTERNET)* 2019

FAKSIMILAK

- *Jaquin-bide Iritarautia...* 1820. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991
- *Gaii Institutionum = La Instituta de Gayo*. Gaztelaniazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845. 1992
- *Aita Frantzisko Vitoriakoaren De indis insularis. De iure belli*. Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea. 1993
- *Valentín de Forondaren Cartas sobre la policía*. Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea. 1998
- *Miguel de Lardizábal y Uriberen Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias*. Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea. 2000
- *Manuel de Lardizábal y Uriberen Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma*. Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea. 2001
- *Xabier Maria Muniberen Discursos inéditos*. 2002
- *Rita de Barrenechea eta beste emakume batzuk. Catalin y otras voces de mujeres en el siglo XVII*. 2006

MATERIAL DIDAKTIKOAK

- *G. Azkarate, L. Errasti eta M. Mena. Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak: arlo eta zehar-lerro ezberdinetarakoariketa praktiko batzu: Bigarren Hezkuntza: DBH eta Batxilergo*. 2000
- *HIP, Hezkuntza Ikerketa eta Programak. Gure eskubideak: Neska-mutilen eskubideei buruzko hitzarmenean oinarritutako baliabideak: Lehen hezkuntza*. 2001
- *E. Acero eta I. Mier. Giza eskubideak jokoan: giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak*. 2001
- *Ikasleen lanak. Gure eskubideak*. 2004
- *Mugarik Gabe. Sortuz: emakumeen eskubideei buruzko material didaktikoak. (CD-ROM)*. 2004
- *ZiberBullying-a: teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa. (CD-ROM)* 2008
- *Leihoak: abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN, gozatu Internetez... sarean erori gabe. (CD-ROM)* 2008
- *Rainbow. Rights against intolerance: building an open-minded world. (DVD)* 2012
- *Haurren eskubideei buruzko hitzarmena*. 2014
- *Rainbow Has. Rights through alliances: innovating and networking both within homes and schools*. 2015

BESTE ARGITALPEN BATZUK

- *Idatz arauak.* 1992
- *Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia.* 1993
- *J. San Martín. Esanak eta eginak.* 1994
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994).* 1994
- *XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo: Vitoria-Gasteiz, 29 y 30 de junio de 2000.* 2000
- *Haurren legea: katalogoa. (CD-ROM)* 2006
- *Ararteko erakundeak 20 urte bete ditu.* 2009
- *25 urte lanean pertsonen eskubideen alde.* 2014
- *Hacia la igualdad real en el ejercicio del derecho a la participación política.* 2015
- *Feminicidio, ¿crimen contra la humanidad?.* 2018



Gomendio orokorrak¹ eta azterlanak

2010

- Gurasoen erantzukizun partekatua banandutako bikoteetan: botere publikoen eginkizuna.
- Zaborraren tasa kobratzea, nahiz eta Gipuzkoako zenbait udalerritan zerbitzua modu eraginkorrean eman ez.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna jaietan.
- Familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzea.
- Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeko neurri gisa bideratzea lanaldia murrizteko eta moldatzeko edo aldatzeko eskaerak.
- Gardentasuna eta agiri publikoak eskuratzeko eskubidea. Bereziki, ingurumen informazioa eskuratzeko.

2011

- Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak.
- 1960ko eta 1970eko hamarkadetan jaioberriak beren ama biologikoengandik bidegabe banandu edo ebatsi zireneko egintzak argitzen lagunduko duten neurrien premia.
- Beste gizarte prestazio batzuen titularrak diren pertsonen langabeziagatik subsidioa etetearen ondorioz jazotako egoerei erantzun bat emateko beharra.
- Jatorriz Europar Batasunekoak diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ijitoen egonlekuetan esku hartzeko jardute-protokoloak garatzeko beharra.

¹ 2010. urtea baino lehen, gomendio orokorrak urteko txostenaren barruan txertatzen ziren

- Osasun arloko datuak lagatzea, adingabeak babesteko arloko herri-administrazio arduradunek hala eskatuta.
- Udalek beren udalerrietako egoitzetan bizi diren etxerik gabekoak eta foru aldundiek tutoretzapean dauzkaten adingabeak udal erroldean jasotzeko jarduerak egiteko betebeharra.
- Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa.
- Haurrek eta nerabeek egindako kirola, une oro eta edozein testuinguruan, hezkuntza parametroen arabera garatzen dela bermatzearen egokitasuna.
- Banandutako gurasoek jaso behar duten informazioa, administrazioak haien semealabez dituen datuei dagokienez, eta aurkeztu behar dituzten agiriak.
